

**2010EKO ABENDUAREN 3AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hirua.

**HILABETEA:** Abendua.

**URTEA:** Bi mila eta hamar.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatziak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe  
Iñigo Arrese Artabe  
Arantza Gibelalde Iñurritegi  
Arantza Aseginolaza Azkargorta  
Malu Valles Fernandez  
Fernando Boada Gonzalez  
Alfonso Segade Gonzalez  
Ana María Crespo Blanco  
Jon Kortaberria Lasa  
Josi Insausti Mujika  
Begoña Lasa Royuela  
Julene Hidalgo Pérez  
Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEA:** M<sup>a</sup> Pilar Vispo Chamosa  
Manuela Uranga Segurola  
Joan Martin Aldaregia Etxebarria

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2010eko urriaren 29ko aktaren onesprena.

2010eko urriaren 29ean, egindako ohiko batzarraldiaren aktaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak ez du akta onartu bertan legez kanpo dagoen plataformak bileran parte hartu duelako.

Beste guztiak aktarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ, PSE-EE/PSOE, ALKARBIDE, EB)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin akta onartu da.

## **2.- AURREKONTUA**. 2011. urterako aurrekontu orokorra onartzea.

Alkatea jaunak (EAJ) proposamenaren berri eman du:

### **“UDALAREN AURREKONTU PROPIOA**

Aurrekontu austeroa da, gaurko egoera sozio-ekonomikoari egokituta. 2010ean egin dira egokitzapen gehienak. Beraz 2011ko aurrekontuak aldaketa gutxi ditu. Hala ere %2 igo da aurrekontua. **Esanguratsua da diru-sarrera arruntek gastu arruntak gainditzen dituztela 2.513.681,81 euroko differentziarekin.** Era horretan , soberakin hori inbertsio gastuak finantzatzeko erabil daiteke, eta kreditu-eragiketa baliabidearen beharra saihets daiteke.

Ongizate, kultura, euskara eta kirol elkarteekin 2010ean hitzartutako dirulaguntzak bere horretan mantentzen dira.

Eusko Jaurlaritzatik, Foru Aldunditik eta beste erakundeetatik onar daitezken egitasmo eta dirulaguntzak ez dira aurreikusi jasoko diren ziurtasunik ez dagoelako. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak bai Euskaltegiarekiko eta baita Musika Eskolarekiko ere nahiko murriztu dira.

Gainera, 2009ko Foru Fondoaren likidazio negatiboaren ondorioz 2011. urtean itzuli beharreko 595.672€ ere kontuan hartu dira.

Zehaztasun gehiagorekin begiratuta honako hau aipatu dezakegu.

- **Sarrera arrunta:** % 0,7 igo da. 2010rako 13.204.625,59 € aurreikusten ziren eta 2011an berriz, 13.297.815,58 €

- **Gastu arrunta:** %0,7 jaitsi da. 2010rako 10.864.729,27 €urreikusten baziren, 2011an 10.784.133,77 €urreikusi dira.

- **Kapital-eragiketen sarrerak:** %5,3 igo dira. 2010rako 432.000 €urreikusten baziren, 2011ean 663.000 €urreikusi dira.

- **Kapital-eragiketen gastuak:** %14 igo dira. 2010rako 2.771.896,32 €urreikusten baziren, 2011an 3.176.681,00 €urreikusi dira.
- Foru Aldundiari zordundutako 595.672€ itzultzea aurreikusten da.
- Hau horrela, 2011. urterako **1.959.009,81 €ko inbertsioak** aurreikusten dira; 2010ean **1.659.372,31 €koak** izan ziren. Hauei gehitu behar zaie Beasain Lantzenek inbertsioetarako aurreikusten dituen **2.979.150,00 €**
- 2011ko inbertsio esanguratsuenak Gobernu taldeak beste udal taldeekin adostuta. hauek izango dira:
  - **J.M. Iturrioztik- Joan XXIIIra igogailua: 400.000€**
  - **Seaska Haurreskolako 2 gelen egokitzapena: 300.000€**
  - **Hainbat espaloi eratu eta berritza: 300.000€**
    - o *Martina Maiz, Igartetxe, Esteban Lasa, Porteri aurretik Joan XIIIra. Nabarro Larreategi.*
  - **Igartzako errotan Done Jaque bideko aterpea: 150.000€**
  - **Azterketak eta proiektuak: Barandiaran eta Dolarea parkeak estaltzea. Arana parkea birmoldatza.: 140.000€**
  - **Auzoetan azpiegiturak hobetu: 100.000€**
  - **Lurzoruaren erosketa : 100.000€**
  - **Udaletxeko erreteila eta fatxada: 100.000€**
  - **Trenbide eta Gernika pasealekuko jolas parkeak berritu: 49.340€**
  - **Kolunbarioak hilerrian: 31.000€.**

## ORGANISMO AUTONOMOAK

Euskaltegia, Musika Eskola eta Antzizar Udal kirol Erakundeen aurrekontuak bataz beste % 3 igoera izan dute.

Beasain Lantzen S.A.ri dagokionez esan, 3.707.880 €ko aurrekontua duela. Hauetatik, 2.979.150,00 € inbertsioetarako: Olaran atzealdean babes

ofizialeko 21 etxebitzta eraikitzen jarraitzea, gaurkoz eskari epea irekita dago eta Igartza-Oletan lurpeko garajeak egiten hasteko (Otsailean lanetan hasiko dira)

## AURREKONTU BATERATUA

18.235.417,04 €koa da aurrekontu bateratua. 2010koarekin alderatuz %1,7 igo da . Ondorengo aurrekontuak osatzen dute:

Udalaren aurrekontu propioa:	13.960.815,58€
Beasain Lantzen,S.Aren Aurrekontua:	3.707.880,00€
Antzizar Udal Kirol Erakundeko aurrekontua:	488.908,28€
Loinatz Musika eskolako Aurrekontua:	612.969,33€
Udal Euskaltegiko Aurrekontua:	369.107,50€

## ZORPETZE MAILA ESTIMATUA

Udalaren finantza egoera jakiteko ezaugarri esanguratsua da.  
2011ko hasieran %5,9ko zorpetze portzentaia aurreikusten da eta urte bukaerakoa %6koa.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Como Partido Popular, vuelvo a presentar una enmienda a la totalidad a los presupuestos para el año que viene, debido principalmente a dos partidas sobre las que nuestra postura es la del a tolerancia cero. Estas partidas son las siguientes: Udalbide Elkarte, con una consignación de 13.500 € y la de ayuda al transporte de familiares de los presos , de 10.000 €.

El presupuesto para el 2011, tiene una partida negativa, que es la de ser superior en un 2% al del 2010, cuando debería de ser inferior. Pero también tiene una parte positiva, cual es el de la reducción del gasto corriente en un 0,7% y el incremento de las inversiones en un 10%. Como Partido Popular respecto de todo lo que se invierta en el municipio hacemos oposición constructiva. Hay que apoyar el bienestar de los beasaindarras, que bastantes impuestos y tasas pagan.”

EBko ordezkaria aurkeztutako proposamenaren alde azaldu da.

Josi Insausti jaunak (**ALKARBIDE**): “Estamos de acuerdo con la propuesta que se presenta porque son unos presupuestos que reflejan prudencia y cautela. Nos satisface porque se recogen mejoras para bienestar social y cultura. En materia de inversiones, los planteamientos también han

sido prudentes. Destacar, el arreglo de aceras como el de Martina Maiz, Igartetxe, Esteban Lasa, etc. Solicitamos, y se ha incorporado, que se consigne una partida para el bidegorri que va desde el polideportivo a Ormaiztegi, concretamente en lo que se refiere al tema de la iluminación, ya que es una vía a la que se le está dando mucho uso. Sabemos que es una competencia de Diputación, pero una vez conocido el planteamiento del ente foral, el Ayuntamiento lo podría acelerar y reintegrarse posteriormente de la transferencia que Diputación efectuara a favor de la entidad municipal.

Parques públicos. Se prevé una partida para realización de estudios e inversiones en parques. Continuamos en ello. Vemos positivo que se incorpore el parque Arana y pensamos que no hace falta mucha inversión porque lo que está alrededor ya se ha regenerado.

Quedan dos cuestiones pendientes como son el de la reparación o modificación de la barandilla encima del muro de Esteban Lasa y también la colocación de jardineras en Sempere. Nos hubiera gustado que se tomara una decisión respecto a eso, pero hemos tenido que priorizar.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Un año más estamos ante uno de los plenos más importantes del año, el pleno de presupuestos. En él se marcan las líneas que se quieren llevar a cabo durante el año 2011, marcando como digo, las líneas políticas que se quieren aplicar, y por tanto la dirección ideológica que hay detrás.

Otro año más, se nos presentó por parte de alcaldía el proyecto de presupuesto, en el que se nos indicaba que dado que es un presupuesto restrictivo dada la situación económica general, que el margen de maniobra a la hora de hacer propuestas era muy pequeño.

Siendo conscientes de la forma de proceder por parte de alcaldía en anteriores presupuestos, en el que se nos planteaba la posibilidad de hacer propuestas, tomando alguna en consideración, que eran reflejadas en el proyecto de presupuesto que el ayuntamiento luego aprobaba, pero que en el transcurso del año no se llevaban a ejecutar, lo que no podemos decir que hemos sido engañados, pues no hemos aprobado ningún presupuesto en este periodo 2007-2010, pero sí que se podría decir mucho de la forma con la que actúa alcaldía, que no solo lo ha hecho con propuestas nuestras, sino con otros grupos con los que sí ha sacado los presupuestos con sus votos y no ha llegado a ejecutar las propuestas aceptadas presentadas por esos grupos. Ellos verán.

No obstante lo anteriormente expresado, en un ejercicio de responsabilidad, dado que se nos ha pedido propuestas, las hemos hecho.

Hemos vuelto a plantear la necesidad de contar con una partida para la compra de suelo, que permita a este ayuntamiento promover vivienda de VPO, hemos planteado la dotación de una partida suficiente para acometer la cubrición del parque Jose Miguel Barandiarán. Tenemos un problema no resuelto de tráfico en el pueblo, y como forma de control hemos propuesto la instalación en ciertas zonas del pueblo de control por sistema de vigilancia, que a su vez sirvieran como control de seguridad preventivo ante la aparición de una delincuencia que hasta no hace mucho no sufría nuestro pueblo. Dentro de las medidas de accesibilidad a barrios, hemos coincidido con el grupo de alcaldía en la solicitud de la instalación de elementos mecánicos a la altura de la antigua empresa Olaran para salvar la diferencia de cotas entre las calles Jose Miguel Iturrioz y Juan XXIII.

A estas propuestas hemos recibido la respuesta por parte de alcaldía en la que se nos dice que "se ha incrementado el capítulo de estudios y proyectos en 40.000 € de los cuales 30.000 € se destinarián a redactar los proyectos de cobertura del Parque J.Miguel. Barandiaran y Dolarea.

En el tema de compra de suelo se ha puesto una partida de 100.000 € destinada a compra de suelo con vocación residencial (Bernedo, Basílica ..) y/o de equipamientos (zona del vertedero de Muruazpi..).

En cuanto a las cámaras de seguridad no las consideramos justificadas por cuanto el nivel de sustracciones ...es poco significativo.

Que quiere decir esto, que para salir del paso acepta poner una partida pequeña para estudios de proyectos, mezclándolo con otros, que como ha sucedido en otras ocasiones, no genera obligación de ejecutarlo. La compra de suelo si aparece con 100.000 €, pero dentro de un contexto más amplio en el que puede quedar al final difuminado. No olvidemos que no es la primera vez que aparece una partida para este concepto y aún no se ha llegado a ejecutar ninguna.

En cuanto al sistema de seguridad, no se considera justificado el nivel de sustracciones, aunque no se duda en participar en una manifestación no hace mucho en este municipio, como consecuencia de una situación de inseguridad surgida.

No nos sorprende, cuando en anteriores presupuestos se nos negó la solicitud de instalación de un sistema de accesos y control para el propio edificio del ayuntamiento.

En presupuestos anteriores presentamos tal como decía en un principio, la adquisición de un coche grúa que era una solicitud por parte de la policía

municipal, se nos pidió y así aceptamos el aplazamiento de la compra, al no contar con un local donde poder guardar los vehículos retirados, aunque no se ha hecho nada por buscar una solución, y ahora que va a tenerse que controlar el acceso de vehículos por la zona peatonal, y su estacionamiento, vamos a volver a tener la carencia de las herramientas necesarias para una buena gestión del tráfico.

Lo anteriormente expuesto viene referenciado respecto al capítulo de inversiones, y planteamientos hechos desde el Partido Socialista, pero no debemos olvidarnos del resto de capítulos y organismos públicos que vienen en el presupuesto consolidado que se nos presenta.

Voy a hacer mención de algunas de las partidas en las que nuestro partido ha presentado y sigue presentando alegaciones a su incorporación en el presupuesto, como son los 75.000 € dedicados a la revista municipal, que para nuestro grupo es la revista del alcalde. O los 13.500 € que se dedican a Udalbide Elkarlan Elkartea, una asociación privada que trabaja para reforzar la ideología de parte, pero subvencionado por todos los ciudadanos. La subvención de 27.040 € tanto a Goierri Telebista, como a Goierriko Hitza, ambas empresas privadas, sin ningún control público.

Quiero hacer mención del presupuesto de la comisión de Juventud, aunque venga con el apellido de "y deporte". Se le ha retirado todo tipo de competencia en este campo, y la ha asumido alcaldía dentro de la "Fundación municipal del Deporte" La comisión de juventud va a contar con 54.058 € para gestión de sus programas ya que el resto hasta 181.978 € son cantidades comprometidas para que las gestionen desde otros organismos, lo que da muestra de la entidad de las responsabilidades asumidas por la presidencia de esta comisión.

No podemos tampoco olvidar el presupuesto de la comisión de Medio Ambiente que gestionará 71.601 € de los cuales la Agenda XXI se lleva 65.646 €. Lo que le queda para gestionar como comisión son 5.955 €. Es curioso lo barato que le cuesta al grupo de la alcaldía el tener el apoyo incondicional de cierto grupo municipal en todos aquellos temas que alcaldía presenta.

Queremos destacar la partida del Instituto Municipal del Deporte de 121.224 €, del convenio colaboración con la S.D. Beasain, y no porque no creamos que la S.D. Beasain no deba tener el amparo del ayuntamiento, sino porque esta partida surge de la asunción por parte de la S.D. Beasain la gestión y mantenimiento de los dos campos de futbol existente, gestión esta, que hasta el momento estaba en Beasain Lantzen, a su vez cedida la gestión a MAS QUATRO, y que ahora revierte, porque se considera que es mejor la gestión de esta forma.

Nuestro grupo no estuvo de acuerdo con la concesión administrativa que se hizo en su día tanto a Beasain Lantzen, como luego a MAS QUATRO, que se hizo en aras a una mejor gestión, y que se va demostrando que no es oro todo lo que reluce.

Con respecto al presupuesto de Beasain Lantzen, en el Consejo de Administración no contó con nuestro voto favorable. Entre uno de los motivos está la asunción del gasto de reparación de la cubierta del polideportivo, que contó con el voto en contra de nuestro partido, pues no pensamos que tengamos que privatizar los ingresos y socializar los gastos.

Es más en las cuentas de ingresos, aún no se ha ingresado el canon correspondiente que tiene que pagar la empresa MAS QUATRO por la explotación del mismo, aunque por parte de alcaldía se nos ha dicho que ya han llegado a acuerdos para el cobro de todas las cuotas atrasadas.

En la comisión especial de Igartza vemos que existen las siguientes partidas:

Trabajos técnicos, coordinador de Igartza 30.110€  
Gestión conjunto monumental 35.400€  
Gastos mantenimiento conjunto monumental 25.000€  
Dietas y locomoción comisión Igartza 10.000€  
Dáandonos un total de 100.510€

Este es un gasto que asume el Ayuntamiento, pero con una gestión privada, a la que se le va a permitir la explotación no solo del control y uso del Conjunto Monumental de Igartza, sino que con las bases que se han aprobado, tendrá la exclusividad en el servicio de catering que se pudiera querer dar por parte de aquella empresa o grupo que hubiera decidido alquilar las instalaciones del Palacio de Igartza, para hacer algún acto dentro de los previstos y autorizados para su explotación. Con esta decisión se está privando al resto de los no adjudicatarios la posibilidad de ser contratados si así hubieran sido requeridos sus servicios.

Un tema que no queremos dejar pasar, es la partida presupuestaria de gestión del Plan Especial de Reforma de la calle Arana, de 55.800 €. Hacer ver que hasta ahora el Ayuntamiento ha gastado unos 100.000 € por los dos años de contrato que ya ha cumplido la empresa adjudicataria AYTASA, y que a día de hoy no se han visto aún ningún resultado.

Es cierto que es mejor tener un presupuesto, aunque sea discutible que no tenerlo, tal como ha dicho el señor Egibar, pero también ha recordado, que este año, no se ha renovado el acuerdo de estabilidad acordado en 2009, entre

el PNV y el PSE-EE (PSOE), para facilitar la aprobación de las cuentas de las diferentes instituciones vascas, pero nuestro partido en una actitud de coherencia, va a propiciar que las cuentas municipales puedan ser aprobadas, a través de nuestra abstención en el voto, crítico pero siempre en una actitud de colaboración y en aquello que podamos acordar y de una forma siempre constructiva y en beneficio de los ciudadanos de Beasain.”

Une honetan M<sup>a</sup> Pilar Vispo Chamosa sartu da bileran.

Alkate jaunak (EAJ): “Las manifestaciones realizadas por el representante del Partido Popular son las que se han realizado en relación a presupuestos anteriores, pero esas partidas las vamos a mantener.

Al representante de ALKARBIDE decirle que en el ejercicio siguiente se va a reforzar la barandilla de Esteban Lasa. La iluminación de los bidegorris es competencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Es una obra que la van a acometer, y si no hay otras fórmulas. Hemos aceptado la propuesta del parque de Arana. Puede mejorar algo, aunque no sustancialmente.

Respecto a la intervención del representante del partido socialista decir que las restricciones han hecho que algunas inversiones no se hayan podido ejecutar. Instalación de sistemas de vigilancia: el nivel de robos ha sido mínimo. Un sistema férreo, puede parecer que en nuestras calles hay una vigilancia policial. Hay otras alternativas para el control. Revista: se puede llegar a afirmar que es la revista del Alcalde por entender que se hace con su criterio, pero lo que tengo claro es que redonda en beneficio de los ciudadanos. Goierri Telebista e Hitza: también el Gobierno Vasco les da ayudas. Juventud: es el presupuesto que han presentado. Calle Arana: tenemos dificultades, pero poco a poco vamos sacando temas. Esperamos un refuerzo del Gobierno Vasco, pero hasta la fecha no hemos visto nada. Procedimiento de la gestión del conjunto monumental de Igartza: El tema es tan sencillo como que en vez de pagar 30.000 €, haya que pagar 60.000. Depende de cómo lo gestione el adjudicatario para sacar beneficio. Es difícil de justificar que el Ayuntamiento subvenciones cócteles. Sociedad Deportiva Beasain: no se modifica la cantidad que se le otorga. Las compras y suministros, incluso su contratación serán de cuenta del club. También le corresponderá abonar el suministro de electricidad, gas, agua, teléfono, así como los gastos de mantenimiento de los terrenos de juego, tanto el césped de hierba natural como el artificial. Si gestiona bien, puede tener beneficios indirectos. Hay 500 chicos y chicas en torno al fútbol. Pensamos que hasta ahora lo están llevando bastante bien.”

Fernando Boada (PSE-EE/PSOE): “Yo no he pedido que se subvencionen los cócteles.

Alkateak ihardetsi dio, baldintza plegua berak proposatzen duen moduan aurreikusita, Udalak ordaindu beharreko 60.000 € izango litzatekeela.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egitera pasa da. Lehenik bozkatu da PPko ordezkariaren proposamena, hain zuzen ere, aurrekontu osoarekiko zuzenketa. Ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 1 (PP)

Aurkako botoak: 10 (EAJ, ALKARBIDE, EB)

Abstentzioak: 4 (PSE-EE/PSOE)

Aldeko botoen kopurua aurkakoena baino txikiagoa denez, ez da onartu PPko ordezkariak egindako proposamena.

Jarraian, Alkatearen proposamena bozkatu da, hau da, 2011. urterako aurrekontu bateratua, 18.235.417,04 €koa. Emaitza ondorengoa izan da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, ALKARBIDE, EB)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 4 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.** 18.235.417,04 euroko 2011. urterako Aurrekontu Bateratuarri hasierako onespena ematea. Aurrekontu Bateratua ondorengoeak osatzen dute:

- |  |                 |
|--|-----------------|
| - Udalaren aurrekontu propioa:                   | 13.960.815,58 € |
| - Beasain Lantzen, S.A.ren aurrekontua:          | 3.707.880,00 €  |
| - Antzizar Udal Kirol Erakundeko aurrekontua:    | 488.908,28 €    |
| - Beasaingo Loinatz Musika Eskolako aurrekontua: | 612.969,33 €    |
| - Beasaingo Udal Euskaltegiko aurrekontua:       | 369.107,50 €    |
| - Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua              |                 |

**Bigarren.** Jendaurrean jartzea 30 eguneko epean, iragarkia GAOean argitaratuz, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Andoni Antxia jaunak bere kexa azaldu du bozketa aurretik hitza eman ez zaiolako. Alkateak hitza eman ondoren, Andoni Antxiak, zinegotziei leporatu die udalek bizi duen egoeraren errua krisiari botatzea, baina bere ustetan beraien alderdietako politikoek beste foru batzuetan hartutako erabakiaren islada besterik ez da. Foru Aldundiari behar dena eskatu behar litzaiokeela dio. Galdu du zorua erostea non proposatzen den eta ea lehengo urtekoa gauzatu den. Ez du zuzen ikusten Beasaingo Kirol Elkarteari ematen zaion dirua, beste Kirol elkartea batzuekin erkatuta. Amaitu du esanez, bozketa emateko aukera izan ezker, ezezkoa izango litzatekeela.

Alkateari hitza eskatu eta gero, Julio Herreros jaunak ondorengoa esan du: "Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal."

Alkatea jaunak Andoni Antxia jaunari erantzun dio esanez, ekipamenduetan inbertitu behar dela, hain zuzen ere, haurtzaindegian, dagoen tokian bertan. Emakumeen arloan ere adierazi beharreko dela dio, ongizatetik egiten ari den lana. Beasaingo Kirol Elkarteari buruz, esan dio lehen ordaintzen zitzaiona ordaintzen zaiola orain ere. Lehen Udalak berari zuzenean ematen zion eta orain aldiz, Kirolaren Udal Erakundea izango da, dirulaguntza hori

emango diona. BKLri ere zeharka subentzianatzen zaiola dio, kirolegian hainbat ordu pasatzen dutelako eta ezer ez zaielako kobratzen.”

Hau azaltzeko, Julene Hidalgo (EB) andreatzi hitza pasatu dio eta honek ezagutzera eman du, elkarte asko daudela kirolegian dauden lokalak dohainik erabiltzen dituztenak, nahiz eta beraiekin elkarlan-hitzarmenik ez sinatu. Erabiltzen dutena eta horrek suposatzen duen gastua azalduko den azterketa egiteko konpromisoa hartu du.

Andoni Antxia jaunak ihardetsi dio, azterketa horren zain gelditzen direla.

**3.- PLANTILA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.** Beasaingo Udalaren eta Organismo Autonomoen plantila eta lanpostuen zerrenda onartzea.

Alkate jaunak (EAJ): Gobernazio Batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Beasaingo Udaleko eta bere erakunde autonomoetako Lanpostuen Zerrenda eta Plantila.

"AKORDIO PROPOSAMENA:

Ondorengo plazak amortizatzea:

- KULTUR TEKNIKARIA
- LIBURUTEGI LAGUNTZAILEA

Ondorengo plazak 2012. urteko plantilan amortizatzen izendatzea, behin titularrak 2011. urteko abuztuan erretiratu eta gero:

- ITZULTZAILEA
- KALE GARBITZAILEA (BALIOANITZA)

Hutsik dagoen OBRETAKO LANGILEAren plaza mantentzea.

KULTURA ETA EUSKARA TEKNIKARI PLAZA sortzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko eta EBko ordezkariak proposamenarekin ados azaldu dira.

Josi Insausti jaunak (ALKARBIDE): “Creo que la propuesta no refleja lo tratado en comisión. Se pedía la elaboración de un análisis funcional o estructural de la plantilla para evitar la sensación de parcheos, y una vez

realizado empezar a trabajar. Por ello yo propongo que se someta a votación esta propuesta y que la plantilla se deje como está.”

Alkate jaunak (EAJ): “En comisión ya se dio a conocer nuestra postura a ese respecto. No nos negamos a que ese análisis se haga, es más, puede ser interesante, pero pensamos que es mejor que sea la nueva Corporación quien tome la decisión. Se propuso someter a la consideración del Ayuntamiento Pleno la plantilla y la relación de puestos de trabajo para 2011, de la manera que se ha dado a conocer, es decir, amortizando las plazas de técnico de cultura y auxiliar de biblioteca, designar a amortizar para la plantilla de 2012, una vez se produzca la jubilación de sus titulares en agosto de 2011, las plazas de, traductor y del peón de limpieza polivalente, mantener la plaza vacante de operario de obras y crear una plaza de técnico de cultura y euskera.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “¿Es que va a hacer falta que haya notario para levantar las actas?. Los sindicatos estaban presentes en la comisión y pueden ratificar que la propuesta aceptada no es la que ahora se trae a Pleno. En la comisión se decidió dejar la plantilla como está y realizar el análisis funcional de la misma.

Alkateak esan du goberazio batzordearen proposamena ondo jasota dagoela. Pertsonal arloko arduraduna hemen dago eta galdeztu liezaiok.

Pertsonal arloko ordezkariari galdeztu zaio hori izan zen hartutako erabakia eta berak ondorengoa dio: la documentación repartida para el Pleno es un extracto que contiene únicamente la propuesta de la comisión de Gobernación. Por ello el texto de la propuesta comienza y termina con puntos suspensivos, dando a entender que previa y posteriormente se recogen otras consideraciones.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “No es así.”

José Insausti jaunak galdeztu du zein prozedura erabili behar den bozketa egiteko.

Idatzariak erantzun du bi proposamen desberdin jarri direla mahai gainean.

Horren ondorioz Alkateak, goberazio batzordetik datorren proposamenaren arabera, hau da, aurkeztutako moduan plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea, bozketan jarri du eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ, EB, PP)

Aurkako botoak: 6 (PSE-EE/PSOE, ALKARBIDE)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua, aurkakoa baino handiagoa denez, gehiengo absolutuarekin onartu da, plantila eta lanpostuen zerrenda, kultur teknikari eta liburutegi laguntzaile plazak amortizatuz, itzultzaila eta kale garbitzaile (balioanitza) plazak 2012. urteko plantilan amortizatzera izendatuz, titularrak 2011. urteko abuztuan erretiratu eta gero, hutsik dagoen obretako langilearen plaza mantentzea eta kultura eta euskara teknikara plaza sortzea.

Jarraian bozkatu da, Alkateak proposatura, plantilaren analisi-funtzionala egitea, hurrengo Korporazioak horrela erabakitzetan badu. Emaitzetan ondorengoa izan da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ, EB, PP)

Aurkako botoak: 6 (PSE-EE/PSOE, ALKARBIDE)

Abstentzioak: 0

Gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena eta horren ondorioz, Josi Insausti jaunak (ALKARBIDE) proposatutakoa, hau da, lehendabizi plantilaren analisi-funtzionala egitea eta hau egin bitartean plantila dagoen moduan uztea, bertan behera gelditu da.

#### **4.- TARIFAK.** Igartzako Multzo Monumentalerako tarifak onartzea.

Alkate jaunak, Arantxa Gibelalde Hazienda Batzorde buruari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

*“GAIA: Igartzako monumentu multzoko bisita gidatuei eta Igartzako Jauregiko gelen erabilpenari aplikatzeko tarifen onesprena.*

*Igartzako multzo monumentalaren kudeaketa eta ustiaketarako Baldintza Orokoren Pleguko 2. klausulak xedatzen duenez, kontratuaren prezioa izango da Udalak adjudikatzailarei ordainduko dion kopuruz gain, Igartzako monumentu multzoko bisita gidatuetatik eta Igartzako Jauregiko gelen erabilpenarengatik jasotzen dituen dirusarrerak*

*Kontutan izanik ere, aipatutako klausulak xedatzen duela prezio horiei Udalbatzak urtero emango diela bere onesprena, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengoa proposatzen dio:*

**ERABAKIA**

*Igartzako multzo monumentalaren kudeaketa eta ustiaketaren adjudikaziodun gertatzen den enpresak erabiltzaileei ematen dien ondorengo zerbitzuengatik 2011 urtean jasoko dituen prezioen onesprena :*

- Jauregiko gelak erabiltzeagatiko prezioak (BEZ kanpo): egun erdiko erabilpena: 200 €, egun osoa: 400 €, 2 egun: 800 €, etab.

- Bisita gidatuengatiko prezioak (BEZ kanpo):

- o Larunbatak: 11:00etatik 13:00etara: 2 €
- o Igande eta jaiegunak: 11:00etatik 13:00etara: 2 €.
- o 15 lagun baino gehiagoko taldeen bisitak: egunero hitzartu ahal izango dituzte bisitak bi egun aurretik erreserba eginez gero.
- o Bisitak ordutegi ezberdinatan antolatuko dira erabiliko den hizkuntzaren arabera.

*Gelen erabilpenarengatiko tarifetan ez dago barne kafetegi edota catering zerbitzuaren kostua.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

PP eta EBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Josi Insausti jauna (ALKARBIDE) proposamenaren aurka azaldu da ez zeharkako kudeaketagatik, baizik eta baldintza plegua onartu den moduan ez dagoelako ados.

Fernando Boada jauna ere aurka azaldu da arrazoi berdinagatik.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ, EB eta PP)

Aurkako botoak: 6 (PSE-EE/PSOE, ALKARBIDE)

Una honetan, Jon Kortaberria eta Ana Crespo bilera utzi dute.

**5.- 09-11-27 AKORDIOA LUZATZEA.** Aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapenerako eta zatikapenerako irizpideak.

Alkate jaunak, Arantxa Gibelalde Hazienda Batzorde buruari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

**“GAIA.- Aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapenerako eta zatikapenerako irizpideak.**

2.009ko urtarrilaren 29an egindako bileran Udalbatzak ondorengo proposamena onartu zuen:

“Ekonomia eta finantza alorrean gaur egun bizi den krisialdi familietan eta enpresen eguneroko trafikoan likidezia falta eragiten ari da. Likidezia hori behar-beharrezkoa dugu gure sistema ekonomikoan dauden obligazioei, eta besteak beste, zerga arlokoei, aurre egin ahal izateko. Hau guztiarengatik eta udal ogasunari egin beharreko ordainketak erraztearen alde kontutan izanik egungo finantza krisialdiak sorturiko ezohiko inguruabarrik, egokia ikusi da aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapen eta zatikapenerako irizpideak arautzea. Araudi hau ez da aplikagarria izango urbanizazio kuotak eta exekuzio subsidiarioen kasuetan, udal ogasunak aurreratzen dituen diru-kopuruak direnez.

Azaldutakoaren arabera eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 64.5 artikuluan xedatutakoaren babespean, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

1.- Borondatzeko epean dauden aipatutako zorren ordainketa geroratu eta zatikatu ahal izango da betebeharpekoaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, organo eskudunaren iritziz, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako.

2.- Ordainketak Geroratzeko eta Zatikatzeko irizpide orokorrak ondorengo hauek izango dira:

**a. 800 eurotik beherako zorrak / Para deudas no superiores a 800 euros:**

- Gerorapena / Aplazamiento:

1. 100 eta 200 euro artean / De 100 a 200 euros..... 1 mes / hilabete 1
2. 201 eta 400 euro artean / De 201 a 400 euros..... 2 meses / 2 hilabete
3. 401 eta 600 euro artean / De 401 a 600 euros..... 3 meses / 3 hilabete
4. 601 eta 800 euro artean / De 601 a 800 euros..... 4 meses / 4 hilabete

- Zatikapena: ez dago aukerarik / Fraccionamiento: no cabe

**b. 800 eurotik gorako zorrak / Para deudas superiores a 800 euros:**

- Gerorapena / Aplazamiento:

- b.1. 800 eta 12.000 euro artean /Desde 800 a 12.000.....6 meses
- b.2. 12.001 eta 24.000 euro artean /Desde 12.001 a 24.000.....12 meses
- b.3. 24.001 eta 36.000 euro artean /Desde 24.001 a 36.000 ..... 18 meses
- b.4. 36.001 eurotik aurrera /A partir de los 36.001..... 24 meses

- Zatikapena /Fraccionamiento:

- b.5. 800 eta 12.000 euro artean /Desde 800 a 12.000.....6 plazos mensuales
- b.6. 12.001 eta 24.000 euro artean /Desde 12.001 a 24.000.....12 plazos mensuales
- b.7. 24.001 eta 36.000 euro artean /Desde 24.001 a 36.000 ..... 18 plazos mensuales
- b.8. 36.001 eurotik aurrera /A partir de los 36.001..... 24 plazos mensuales

- 800 eurotik gorako zorren kasuan, organo eskudunak, kasu bakoitza aztertu eta gero, gerorapen edo zatikapena onartzea erabakiko du. Organo eskudunak, zehaztuta ez dauden ordainketa epeak onartu ahal izango ditu, beti ere zehaztuta dagoen gehiengo epea gainditzen ez den bitartean.

3.- Borondatzeko epea amaitu ondoren 12 hilabete edo gehiagoko epeko gerorapen eta zatikapenak ez dute interesik sortuko.

4.- Berandutza eta zatikapena onartuz geroko lehen urtea igaro ondoren, zordundutako kopuruengatiko diruaren interes legala sortuko da.

5.- Oro har, araudi honen arabera emandako gerorapen eta zatikapenetan ez da bermerik eskatuko.

6.- Epealdi bakar baten ordainketa betebeharra haustea nahikoa izango da zatikapen edo gerorapen emakida bertan behera gelditzeko eta epe

*exekutiboa hasteko. Horrela, geroratutako zorra, interesak eta dagokion gainkargua eskatuko dira.*

*7.- Araudi honetan xedatutako baldintzen arabera gerorapenak eta zatikapenak emateko Alkateari ematen zaio eskumena, Hazienda Batzordearen aurretiazko aldeko eta nahitaezko proposamenaren arabera.*

*8.- Araudi honen indarraldia onartua izaten den unean hasiko da eta 2009ko abenduaren 31n amaituko da. Onartzen diren irizpide hauek ez-ohiko moduan aplikatuko dira ordainketa epea etendako egoeran eta araudi hau indarrean sartzeko unean ebazteko zain dauden, gerorapen eskariak eskatuta dituztelako, zorren kasuan.”*

*2009ko azaroaren 27ko bileran, Udalbatzak erabakiaren indarraldia 2010eko abenduaren 31ra arte luzatzea erabaki zuen.*

*Kontutan izanik hartutako erabakiaren arrazoia irauten dutela oraindik ere, Hazienda Batzordeak Udalbatzari **proposatzen dio 2.011ko abenduaren 31ra arte akordioaren indarraldia luzatzea onartzea.**”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**6.- HOBARIA Eraikuntzen gaineko zergari buruzkoa.** “Agauntza” 31 arean 13 etxebizitza tasatu eta babes ofizialeko 25 etxebizitza eraikitzeo obrek sortzen duten eraikuntzen gaineko zergari buruzko hobaria.

Alkate jaunak, Arantxa Gibelalde Hazienda Batzorde buruari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

*“Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:*

*%95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuak barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehunekoa Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.*

*Hazienda Batzordearen iritziz, goian aipatutako interes bereziko eta udal onurako zirkunstantzia sozialak betetzen dira eta beraz, Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:*

*“Agauntza” 31 arean 13 etxebizitza tasatu eta babes ofizialeko 25 etxebizitza eraikitzeko obrek sortzen duten Eraikunta, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**7.- BAKE EPAILEA.** Bake epailea, titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamena.

Alkate jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

*“GAIA: Bake Epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamena.*

*Eusko Autonomia Elkarteko Auzitegi Nagusiak eskatuta 2010eko irailaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren Web orrian, Bake Epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamenaren beharra argitaratu zen, lau urtetarako izendatutako Bake Epaile titularren epea amaitzear dagoelako. 2010eko urriaren 31bitarteko epea eman zen eskaerak aurkezteko eta epe horretan hemezortzi eskaera aurkeztu dira, aipatutako karguak betetzeko.*

*Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, Alkateak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:*

- *Eusko Autonomia Elkarteko Auzitegi Nagusiari Bake Epaile titularra izendatzeko ondorengo andrea proposatzea: GENMA LARRAÑAGA ARBELAITZ, 72.421.307-B NA duena, ezkondua eta Beasainen bizi dena.*
- *Eusko Autonomia Elkarteko Auzitegi Nagusiari Bake Epaile ordezkoa izendatzeko ondorengo jauna proposatzea: JOSE LUIS DIEZ ZURUTUZA, 15.890.538-B NA duena, ezkondua eta Beasainen bizi dena.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

#### **8.- BEASAINEN HAURREN, NERABEEN ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO SISTEMA GARATZEA.** 2010-2011rako lan ildoak.

Alkate jaunak, Julene Hidalgo, Gazteria eta Kirol Batzorde buruari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

*"Beasaingo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkarlanaren hasiera 2005. urtean kokatzen da. Udalak Beasaingo herrian Sustapen Arloa garatu ahal izateko laguntza eskaera egin zion GFAri. Honen harira, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Atalburuak aholkularitzaz erbitzua zer zen azaldu zuen, erakunde bien artean epe ertain-luzera begirako elkarlana abian jartzeko aukerarekin batera. Diagnostiko bat burutu zen, hastapen lan proposamen batekin. Baino momentu horretan ez ziren elkarlanarekin aurrera jarraitzeko baldintzak ematen, eta epe batez elkarlana inpas egoera batean geratu zen.*

*Geroztik, puntualki harremana mantendu da erakunde bien artean, eskaera konkretuetan laguntza eskainiz. 2010ean epe ertain-luzera begira proiektu batekin hasteko aukerak zeudela ikusita, beharrezko tramiteak egin ondoren elkarlana abian jarri zen. 2010eko otsaila hasieran, Udalaren, GFA eta Bulego Teknikoaren ordezkarien arteko lehen bilera baten bidez lankidetza martxan jarri zen. Bilera honetan, Udalak Arloa garatzeko erreferente tekniko bat izendatu zuen.*

*Epe ertain-luzeko lankidetzaren helburua, Udalak Sustapen Arloa garatzeko dinamika propioa duen Udal unitate bat izatea da. Lankidetza honek 3-5 urteko iraupena dauka, eta hau garatzeko baldintza hauek eman behar dira:*

- Arloaren ardura izango duen Udal erreferente tekniko bat.
- Konpromezu politikoa egotea.

*Lankidetza mota honetan Bulego Teknikoak lan proposamena diseinatzeko diagnostiko bat egiten du, herriaren ezaugarriak eta dagoenaren ezagutza orokor batean oinarritua.*

*Proposamenak 3-5 urtetarako helburuak jasotzen ditu eta hauek lortzeko urteroko kudeaketa plan bat planteatzen da. Hau garatzeko Udaleko teknikaria eta BTaren arteko lankidetza egonkorra da, proposamenaren garapen osoan zehar mantentzen dena. Teknikarien arteko lankidetza honetan, hasieran BTak hartzen du lan zama handiena, baina garapenean aurrea egin ahala Udaleko teknikaria da ardura eta lan zama bere gain hartzen duena, proposamenaren amaiaren honek izango dituelarik ardura guztiak.*

*Diagnostikoa egin ondoren (dokumentazioa aztertu eta hainbat elkarrizketa egin dira udalak esandako pertsona eta erakundeetako ordezkariekin), datozen urteetan egin nahi den lan proposamena aurkezten da, 2010-2011 urteko lan ildoak zehatzuz.*

*Lan proposamenaren dokumentua Gazteria batzordean aurkezten da eta, onartuz gero, Udalbatzara bidaliko da onartua izateko. Lankidetzarekin aurrera egiteko lankidetza hitzarmena urtero berrituko da bi aldeen adostasunarekin.*

**Beraz, Gazteria Batzordeari honako hau onartzea proposatzen zaio:**

1. 2010-2011 urteko lan ildoak jasotzen dituen dokumentua onartzea eta Udalbatzari onartzeko eskaera egitea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**9.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.** Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna.

Alkate jaunak, Begoña Lasa, emakumeen arloko ordezkariori hitza eman dio eta honek adierazpena irakurri du:

*"Aurten ere, azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, indarkeria sinboliko, leun, maltzur eta ia ikusezin horretan jarri nahi dugu arreta, zeinaren gainean eraikitzen baita emakumeen identitatea eta, era berean, emakumeen aurkako indarkeria fisikoa ahalbidetzen baitu.*

*Indarkeria sinboliko hori ideia okerretan oinarritzen da, baina ideia horiek oso zabalduta  
daude eta naturaltzat hartzen dira; esate baterako, ordu eta leku jakin batzuetan  
emakume izatea arriskutsua dela;; beldur izaten ikastea eta hauskor sentitzea, babestua  
izan beharra sentitzea; lotsatuta edo errudun sentitzea sexu-eraso bat jasan  
izanagatik edota tratu txarrak  
jasan izanagatik, eta nahiago izatea hori justifikatzea edo ukatzea...*

*Hori guztiori dela eta, urte osoan zehar jarri behar dugu arreta gure udalerriko nerabe eta gazteengan, baina are gehiago, egun hau hurbiltzean. Modu horretan, indarkeriaren formarik leun, naturalizatu eta sozialki onartuenak ezagutu ditzaten, eta horren aurrean hain hauskorak izan ez daitezzen.*

*Horretarako, BERDINSAREaren iazko kanpainan erabilitako goiburua  
berreskuratu nahi*

*dugu: BELDUR BARIK. Zeren “Beldur barik” esateak beldurra ukatzen du, emakumeen kontrol-estrategia gisa.*

*Horren guztiaren jakitun, Beasaingo Udalak*

*KONPROMISO HAU HARTZEN DU: udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzea berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka, eta arreta berezia jartzea emakume gazte eta nerabeek jasaten duten indarkeriarengan, modu eraginkorrean baliatu daitezen beldurrik gabe bizitzeko eskubideaz eta indarkeriaren aurka defendatzeko aukeraz.*

*ABIAN JARRI urtean zehar zenbait ekimen . Horrela, emakumeen partaidetza aktiboarekin, beldurrari eta hauskortasunari aurre egiteko behar diren baliabideak jarriko dira euren esku, euren jabelekuntza ahalbidetuz; era berean, gazteekin batera egin beharreko lana bultzatuko da, portaera sexistak prebenitzeko eta eraso matxisten aurrean jokaera aktiboa izan dezaten animatzeko.*

*ANIMATU EGITEN DITU herritarrak, eta, oso modu berezian, herriko neska-mutilak, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna (azaroaren 25a) dela-eta egingo diren ekintzetan parte hartzera.”*

#### **10.- MOZIOA.** Saharauien aldeko mozioa Alkateak aurkezten duena.

Alkateak adierazi du, aurkeztu beharreko mozioa mahai gainean gelditzen dela eta horren ordez beste hau aurkezten dela:

*“Aaiunen, Marokoko agintariek 20.000 sahararrek baino gehiagok beren egoeragatik modu baketsuan protesta egiteko bilduta zeuden kanpamentua bortxaz hustuarazita izandako gertaera larri-larriak direla-eta:*

**1.- Beasaingo Udalak kondenatu egiten ditu Marokoko Gobernuak saharar populazioaren kontra egindako indarkeria-ekintzak, eta elkartasuna eta babesa adierazten die sahararrei.**

**2.- Beasaingo Udalak kondenatu egiten du saharar zibilen hilketa, Marokoko Armadak Aaiunen kokatutako zibilen kanpalekuaren kontra burututako eraso militar bortitzak eragindakoa, eta elkartasuna adierazten die eraso horren biktimei eta beren senideei. Era berean, barru-barrutik deitoratzen du liskarretan hildako polizia marokoarren heriotza.**

3- Beasaingo Udalak berriro adierazten du konpromisoa daukala saharar herria jasaten ari den egoera salatzeko eta herritar horien eskubide zibil eta politikoak eskatzeko.

4- Beasaingo Udalak azaltzen du kezkatuta dagoela Marokoko indar polizial eta militarren presioak giza eskubideen bortxaketa ari delako eragiten Mendebaldeko Saharan.

5- Beasaingo Udalak Nazio Batuen Erakundeari eskatzen dio eman diezaiola MINURSORI saharar populazioaren giza eskubideak babesteko ahalmena. Beasaingo Udalak exijitzen du, gainera, MINURSOk (Nazio Batuen misioa Mendebaldeko Sahararen erreferendumerako) bitarteko indar gisa jokatu dezala gertakari hauen aurrean.

6- Beasaingo Udalak Espainiako Gobernuari eta instituzio guztiei eskatzen die bermatzaile- eta begirale-jarrera mantendu dezala Mendebaldeko Saharan giza eskubideak haustearen aurrean, eta areagotu ditzatela beharrezko diren lan diplomatikoak, behingoz bukatu dadin Gdeym Izik kanpalekuaren kontrako eraso bortitza eta Aaiungo ondorengo gorabeherak, aurrerantzean biktima gehiagorik ez izateko.

7- Beasaingo Udalak adierazten du beharrezkoa dela nazioarteko behatzailak etengabe egotea lurralte okupatuetan, eta animatu egiten ditu gizarte zibila eta erakunde eta kargu instituzionalak jarraitu dezaten giza eskubideen bortxaketak salatzen.

8-Beasaingo Udalak berretsi egiten du saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea Nazio Batuen Erakundeak adostutako eran.

9.-Beasaingo Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio hartu dezala berari dagokion papera eta babestu dezala gatazka konpontzeko prozesua Nazio Batuen esparruan.

10 Beasaingo Udalak animatu egiten ditu herritarrak eta instituzioak Euskadin egitate hauek arbuiatzeko antolatzen diren ekitaldietan parte har dezaten.

Beasain, 2010eko abenduaren 3a.

Adierazpen instituzional hau bidaliko zaie Marokoko agintariei, agintari sahararrei, Espainiako Gobernuari, Europar Batasunari eta Nazio Batuei."

Une honetan, Julene Hidalgo andreak bilera utzi du.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**11.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.** Ezagutzera eman dira, Alkateak 2010eko urriaren 26tik azaroaren 29rarte emandako ebazpenak.

## **12.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderan atalean honelakoak aurkeztu dira:

### **KIROLDEGIKO ORDUTEGIA**

Josi Insausti jaunak (ALKARBIDE), eskatu du Kirodegiaaren ordutegia aztertzeko, batez ere, jai egun eta zubietan.

Alkateak erantzun dio, datorren astean izango direla Kirodegiko Batzar Errektorearen eta Jarraipen Batzordearen bilerak eta orduan hartuko dela erabakia.

Jarraian azaldu du orain dela gutxi izandako zubian emandako ordu beteko murriketa ez dela izan kirodegiaaren iniziatibaz, baizik eta Iberdrolak eragindakoa izan zela. Pentsatu zen murriketa egin behar izan ezkero, egunik onenak horiek zirela.

### **AHT OBREN ONDORIOAK**

Andoni Antxia jaunak adierazi du AHTko obren ondorioz, Sagastigutia parkean lokatza antzeko zerbait sortu dela eta galdetu du ea horri buruz zer esan daitekeen.

Alkateak erantzun dio esanez, arduradunak esan duela lokatza beltza dela lur horietan arbela dagoelako, baina eskatu diola erantzun zehatzagoa emateko.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamaikak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

